

berbarotarra



elkartea



Zelan egiten da?

Prozedura erraza da. Talde txikietan elkartuko gara partaideak (5-6 pertsona), eta taldeak berak aukeratuako orduan eta egunean batuko da, danon artean adostutako lekuan. Taldeak osatzerakoan kontuan hartuko dira partaideen gustuak, interesak eta abar.

Zertan lagundu?

Berbaro Elkartearen eginkizuna euskaldun zaharrak bilatzea da; beraz, zuen txanda dator orain. Behin jakinda Berbalagun zer den, izena ematea baino ez da geratzen. Hori egiterakoan inkesta txikitxo bat bete beharko duzue eta zuentzat egokiagoa den ordutegia aukeratu.

Apunta zaitez berba lagun era

Urte berriarekin batera Durangon martxan ipiniko den Berbalagun proiektu hau Bizkaiko

AEK-k eta Euskara Elkarteen Topaguneak sortutakoa da. Beste herri batzuetako esperientzia

hartuta, Durangoko elkarte garrantzitsuen elkarlana bideratuz, jarri dugu martxan egitasmo hau. AEK, Udal Euskaltegia, Hizkuntza Eskola, Durangoko Udala eta Berbaro Elkartea elkarlanean arituko dira euskaldun barri eta zaharrak batzen eta berba eginez batzuen zein besteen hizkuntza gaitasuna aberasten.

Zelan eman izena?

Deitu telefonoz Berbarora, ondoren eman-go dizugun telefonora, inkesta txikia bete eta listo. Nahi izanez gero, Udal Euskaltegian eta AEK Euskaltegian ere eman dezakezue izena.

Berbaro Elkartea:

Pinondo Etxea 1,
Telefona: 94 620 19 18

14. Haur Literatur Magikoa

Liburu, galtzagorri, ipuin, serpentina magiko, idazle, kri-seilu, lamia eta abar luze baten magiak bildutako 14. Haur Literatur Aretoa izan da abendukoa.



Abenduaren 9tik 18ra bitartean, San Agustin Kultur Gunean, 2000 ume inguruk parte hartu dute Berbarok sorturiko liburuen magia-zko munduan. 3 eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoek beraientzat apropos antolaturiko ekintzetan parte hartu dute, San Agustin apain eta ezezagun batean.






Txikitxoek, eszenatoki gainean, hiru euskal ipuinen antzezpeneen ikusle eta parte hartzaile bihurtu ziren.

Taupada Antzerki Taldeare, "Printze txikia" ikuski-zunarekin azaldu zen Areto nagusian, 6-10 urte bitarteko umei izen bereko liburuen beste ikuspegi bat eskainiz.

Eta nagusienek, berriz, txukun aurrez ikastetxean prestatu-rik elkarriketa izan zuten, haur eta gazteen euskal literaturako izen esanguratsuenekin: Arrate Egaña, Txiliku, Iñaki Zubeldia, Agurtzane Ortiz de Landaluze, Juan Kruz Igerabide, Antton Kazabon, Aitor Arana, Joseba Osa, Seve Calleja eta Yolanda Arrietarekin.

Haur Literatur Aretoa boro-biltzeko, abenduaren 13 eta 14an Kukubiltxo Antzerki Taldearen "Ekidazu. Lehoiek ez dakite bibolina jotzen" ikuskizuna ikusteko aukera izan zuen 400 bat lagunek.

Lan handia izan da, baina bere fruituak eman ditu. Eskerrik asko 14. Haur Literatur Aretoa errealitate izaten lagundu diguzuen guztioi.



Anboto Irratia Durangalde osoan entzuteko lanean dihardugu

Zemendiaren 10ean aire-ratu zituen lehenengo berbak Anboto Irratiak. Abenduaren amaieran gaude eta lehenengo pausak eman ditu irratiak. Behin airean egotea lortu dugula, aurrera begira jarri behar gara datorren urtetik aurrera irratia sendotzen joan dadin. Horretarako, lehenik eta behin, gure emisioa Durangalde osora heltzea lortu behar dugu. Gaur egun Elorrión oso ondo entzuten da eta Berriz eta Zaldibarko hainbat etxetara sartzea ere lortu dugu. Eskualdeko gainerako herrietara ondo eta ozen

ailegatzeko beharrezko bideak lantzen gabiltza, eta urte berrirako, horrela izatea itxaroten dugu. Hori baita gure lehenengo helburua. Horrez gainera, 107.1ean gaudela ere zabaltzen jarraitu behar dugu, batzuk, Durangon gaudela pentsatzen jarraitzen dutelako. Bestetik, momentuz, zuzeneko ordu biko programazioarekin jarraituko dugu egonkortzeko premia dauka eta. Eguneroko saioa egiteko kolaboratzaile finkoak behar ditugu eta horien bila dihardugu; beraz, zuetariko baten bat prest egonez gero,



Goizeko 11:00etatik 13:00era Anboto irratiak zuzenean

edozein proposamen aztertzeko gertu gaude. Aurrekoa laburbilduta esateko, Anboto Irratia 107.1 entzun daitekeela

zabaltzea, eskualde osora ondo heltzea eta dagoen programazioa sendotzea dira gure gaur eguneko helburu nagusiak.



Asteon aldizkaria Anbotorekin

Datorren urteko urtarriletik aurrera Asteon Telebista Aldizkaria jasoko duzue Anbotorekin batera. Asteon Euskara Elkartearen Topaguneak, Anbotok eta beste herri aldizkari batzuen

arteko elkarlanak sortu duen telebistari buruzko aldizkaria da. Tokian tokiko herri aldizkariaren eskaintza hobetzeko asmorekin egin dugu. Durangaldean 8000 etxetara helduko da astero astero Anbotorekin batera eta Euskal Herrian 60.000

etxetara zabaltzen hasi eta 100.000ra heltzea espero da urtebeteko epean.

Telebistari buruzko aktualitatea, telebistako pertsonaiak, telebistako programazioa eta honen inguruko kritika izango dira jorratuko dituen gai nagusiak.

Datozenak

Urtarrilaren 22an, asteazkena,
20:30etan **Rafa Rueda**
"Kea" diskoaren aurkezpena
BERBARO Tabernan.

Urtarrilaren 30ean, barikua,
21:00etan **Txapel Bete Bertso**
BERBARO Tabernan.

Urtarrilan zehar,
Erakusketa:
José Amantegiren Elektrografiak
BERBARO Tabernan.

Martxoaren 31n, asteazkena,
Bonbaketaren 67. urteurreneko
ekitaldiak
GEREDIAGA eta KRISKITIN
elkartekin batera.



Abenduaren 30eko Bertso saioa

Urteko azken bertso saioa arrakastatsua izan genuen abenduaren 30ekoa. Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Xabier Silveira eta, bertakoa den Peru Madalena izan genituen Igor Elorzaren gidaritzapean. San Agustin politto bete zen giro umoretsuan bertsoez gozatzeko.

Eskerrak laguntzaileoi



Durangoko Azokea izan dogun asteburu luzean, Durangoko hainbat euskaltzalek borondatezko lan ikaragarria egin dozue: batzuek Berbaro Tabernan, Durangora etorritako jente urioleari aurre eginaz; beste batzuek Kafe Antzokiaren txosnan, kultur ekitaldiak eta jan-edana ezin hobeto alkarlotuaz; eta beste batzuek, Haur Literatur Aretorako, San Agustin prestetan.

Gure alkarteko Zuzendaritza Batzordeak dan-danoi esker-tu gura deusue euskerearen alde mosutruk egin dozuen lan ikusgarria. Eta jakin eragin gura deusue, zuen modukoekin, euskerearen aldeko beste hainbat ekimen eta proiektu bultzatzeko moduan gagozala.

Eskerrik asko, bene-benetan!!

ARANTZA

Oraingo honetan arantza Durango Telebistarentzat izango da bi arrazoi hauengatik:

1. Ematen dituzten marrazki bizidunak gazteleraz dira; jakinda D ereduan %71 ume matrikulatuta daudela eta B ereduan %29, ez litzateke logikoagoa izango euskaraz ematea marrazki bizidunak?
2. Euskaraz sörtutako telesail bat ere ematen dute, baina gaztelerazko bertsioa aukeratu dute.

durangoTB
DURANGO TELEBISTA

LARROSA

Gizarte-segurantzak merezi du larrosa gaurko honetan. Orain arte gazteleraz baino ez zeuden inprimakiak, denbora batetik hona euskaraz ere eskuratzeko aukera daukagu gizarte-segurantzak interneten daukan web orrian. Langileen altak eta bajak, enpresaren TC1 eta TC2 inprimakiak eta beste hainbat tramite gure hizkuntzan egiteko aukera izango dugu.

GIZARTE SEGURANTZAREN
DIRUZAINITZA OROKORRA

